ERREPORTAJEA ESTARTA ENPRESAREN PABILOI BERRIA
GEHIGARRIA KILIBARREN · KIROLA ELGOIBARKO X. DUATHLOIA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko apirilaren 27a/VIII. urtea/380. zkia




# Estarta, garai berrietara moldatua

# Maiatzaren a natoz




## lan egonkorra, segurua eta geure eskubideekin

*Donostian, goizeko 11:30ean, Alderdi Ederren*
*Bilbon, eguerdiko 11:30ean Jesusen Bihotza enparantzan*
*Gasteizen, eguerdiko 12:00etan Andre Mari Zuriaren plazan*
*Iruilean, eguerdiko 12:00etan autobus geltokian*

CC.OO.

**DEKRETAZOARI EZ**

UGT

**Autobusa Donostiara King-Kongeko geltokian goizeko 10:15ean.**



## Aurrerapenari bizkarrik ez eman

Oraindik ere gogoan dut lanerako ordenagailua erabili behar nuela agindu zidaten eguna. Ezezkor hartu nuen agindua. Zer dela eta erabili behar nuen tramankulu hura, nire idazmakina elektrikoarekin hain ondo moldatzen nintzanean? Gainera, zeinek erakutsi behar zidan hura erabiltzen, nondik piztu behar zen ere jakin ez nekienean? Eta martxan jarri eta zer egin behar nuen nik hainbeste zeinu ezezagunen aurreart? Eta gero, arratoia... arratoia xelebrea benetan. Beste klasekoekin ez naiz ondo moldatzen eta honekin konpondu behar al dut? Azkenik, aginduak beti agindu, ikasi egin behar izan nuen, hori bai, nire ondoko lankide guztiak zorabiatu eta gero: ...lagundu mesedez!... sinbolo guztiak hankaz gora jarri ditut!... ai ama, egun osoko lana borratu egin zait ! non dago dokumentu madarikatu hori?.... horrelakoak egunero. Baina poliki-poliki, tramankuluaren aurman eroso sentitzen hasi nintzen eta lana erraztu zidan erabat: "Tipex" zikina betiko baztertu dut. Dokumentu eta testu guztiak inoiz baino txukunago ateratzen zaizkit. Gainera, edonora bidaltzeko aukera ere badut. Den dena, artxibatuta dago. Irratia entzun dezaket lan egiten dudan bitartean, eta Interneten ere nire saiotxoak egiten ditut tarteka. Argi dago, ni ez natz Eusko Jaurlaritzak eskainitako ikastaroetan parte hartu duten 6.000 lagun horien artean aurkitzen. Ez eta Emakundek antolatutako 1.210 emakume gipuzkoarren artean ere, Baina gaur egun eskaintza zabala da eta adin eta klase guztietako jendeak har dezake parte Ofimatika eta Intemeteko ikastaroetan. Inguruko guztiak erotu baino hobe profesional batek irakatsiko dizkigunak ikasi. Eta aurrerapenari bizkarrik ez eman, hauxe da nire gomendioa, edozein egunetan behartuta ikus dezakezu eta zeure burua.

Olga Unzilla

Cn rn O OIZI:



# Frogatu beharra

Liburuaren eguna ospatu zen astelehenean, eta horrelako egun hat ospatzeak irakurleok liburuarekiko dugun zorra salatzen du. Euskarazko liburugintzari dagokionez, libunten eskaintza ikaragarri handitu eta hobetu da. Baina, dirudienez, irakurle kopurua ez da neurri berean gehitu. Beraz, irakurleak zor dizkiogu euskarazko liburugintz.ari.

Gabonetako edo urtebetetzeetako opari edo eskolako betebehar izan ohi da euskarazko liburua. Hau da, ez omen da euskarazko ezer gozamenerako irakurtzen, hehartuta baizik.

Euskaldunoi buruzko topiko horrek benetan mintzen gaituena salatzen du: euskaldunon izatea eta balioa oro zalantzan jartzea. Euskarazko irakurzaletasunaz duda egiten da, inork ez du zalantzan jartzen erdarazko liburuak irakurtzen direnik. Hatt da gure henetako gaitza: euskaldun garela etengabe Frogatu beharra.

Amaia Lariz

11~O

motz MotZ .......... 6

kale iNKesta .......... 8

gehigarria .......... 13

kiROlAk .......... 20

aGencla .......... 74

## MENDIEN INDUSTRIALIZAZIOARI **STOP**

Hemen gaituzue herriro ere, maiatzaren Iehenengo domekan ospatzen den Hirukurutzeta eguna dela-eta. Horrenbestez, aurtengoan ere eolikoen kontuari heltzea otu zaigu inguruan bizi garen herrialde desberdinetako, hala nola, Azpeitia, Azkoitia, Bergara, Soraluze eta Elgoibarko herritarroi.

Dimdienez. egoera politikoaren egonkortasun ezak eolikoen gaia momentuz isilduarazi egin duen arren, ezin dugu ahaztu Elgea-Urkilla deritzon zentral eolikoa martxan dela jada eta honi guztiari lotzen zaion 3-E 2005 Energia Plana ere bai. Euskal Gobernuaren egitasmoaren arabera 2005, urterako, kontsumitzen dugun argi indarraren **(43a** haize indarraren bidez lortu nahi da. Horretarako 800 metroko altueratik gorako 13 leku aukeratu dira: Hirukurutzeta-Karakate, Gazume, Zamiño-lzazpi, Elgea-Urkilla, Ordunte, Gatiekorta, Oiz, Mandoegi, Kolometa, Arkamo, Badaia, Iturrietako mendiak eta Alda-Arlaba.

Momentuz, lehen esan bezala Elgea-Urkillako zentrala ari da martxan, baina 9-3 hori lortzeko (175 Mw) beste hiru edo lau ere egin heharko dituzte, gutxtenez 30 km. mendi mutur industrializatuz. Hau heti ere Eusko Jaurlaritzakoek emandako informazioaren arabera, guk ez baitugu lau edo bost zentralekin hainbeste argi indar lor daitekeenik uste.

Esan behar. haizearen bidez lortuko den argi indarra ez dela gai energia nuklear zein termikoa inondik inora orclezkatzeko, ezta gutxiago ere. Energia alternatibo giza aurkezten zaiguna, orain anekoari gehitzen zaion energia iturri soil bat besterik ez baita. EAEn urtetik urtera argi indarraren ck4a gehiago kontsumitzen dugu, nork esango digu orduan cpe enain edo luzean ez dituztela leku guztietan zentralak egingo? Horregatik, ingurugiroa errespetatuz bizitzeko aukera bakarra, gaur egungo gizarte eredu kontsumista eta kapitalistari frenoa janzea dela deritzogu.

Zentral Eolikoen proiektuaren atzean daudeek (E.V.E., lberdrola, gamesa. BBVA) energia iturri eolikoa monopolizatu nahi dute; ondoren, ahalik eta argi indar gehien kontsumiaraziz euren diru irabaziak biderkatzeko. Horrela, zentral eolikoak beste diru iturri bat izango lirateke beraientzat. Eredu honek energia eolikoaren autogestiorako inolako aukerarik ez du uzien, ez eta kontsumoaren jaitsierarik planteatzen ere.

Zentral eolikoen planen eragina, mendi eta nekazal lurrek ez ezik, animaliek, landaretzak, zuhaiztiek, eta oro har ekosistemek jasoko dute. Errepideen eraikuntzak, aerosorgailuen ezarpenak (60 metro luze eta 3 metroko diametroaz) eta beste eraikuntzek tnendi gainak zuzenean txikitzen dituzte; paisaia erabat hondatzen dute, haita isiltasuna ere, etengabeko zaratarekin. Arazo energetikoaren aurrean, hau da gure jarrera: energia hauen deszentralizazioa eta energia kontsumoaren jaitsiera industrian, garraioetan eta etxeetan; eta hori, antolakuntza ekonomikoa, soziala eta politikoa zuzentzen duten batoreen aldaketa sakon batek lagunduta.

Ama lurrari zor diogun errespetuaz ohartuko garelakoan, osasuna eta askatasuna,

Zentral Eolikoen aurkako
Hirukurutzeta-Karakate Bizirik Plataforma

## 2001EKO MAIATZAREN LEHENA

Maiatzaren lehena hi klabetan kokatu behar dugu: Bakea eta hurujabetza eta eraso soziolaboralak.

Burujabetza eta bakea behar ditugu: gure herriaren nortasuna sakontzea ahalbideratuko duena; gure hizkuntza eta kultura garatzea bermatuko duena: Euskal Herria lurralde eta instituzio mailan egituratzeko; euskal esparru sozial eta ekonomikoa gauzatzeko eta lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua garatzeko.

Bakea burujabetzaren gauzapen demokratikoaren ondorioa da.

Madrildik eta Paristik sortzen diren langileen aurkako eraso soziolaboralari aurre egin behar diegu: erreforma laborala; Hobetuzi sabotajea; enplegu eta gizarte sozialari betoa; apartheid sindikala Nafarroan...

Eta manifestažioak ere egingo dira egun honetan Iruñan, Bilbon, Donostian, Baionan, Maulen eta Gasteizen.

LAB-ek lehen aldiz deialdi nazionala egingo du Euskal Heni osoari begira.

Eigoibarko LAB

RIA

BRRAs'

Nararraa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
iz 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-mal;a:
barren@topapunea-com
Helbide intormatikoa:
www.tapagunea.correbarren
ARG1TARATZAILEA
Egatarkla izarra

ELGOIBARK0 ̦12ARRA

LAtarrzaza Elgabarko IkialaZUZESIDARIA Eli Arzpuru KAZEURIAN Iraa Agirreazaldegi. Asper Ortma PGGLIZITATEA And(11t7Agirregomezkorta MAKETATULEA Bea Arisela AbliNSTRATIOA AMara Rodagez GERENTZIA Jon Peli Unguen ela M. Angeles OnUOSte. KOLASOEATZAILEAK Amaia Lanz, Unai Argarate, Eguzkine Aranhern, Lorea Perez de Albeniz, Jolen Marlinez, AIlpf Zabaleta. Leire Urtridi. Olga Unzilla. Montse Arregr. Juanno Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurrutxaga, Jon Eugi, ArnhCra Andanni, Kokee KG. eta Urruzuno L.T. AZALEK0 ESALDIA Gonon Garale INPAIIMATEGIA Gerlu Koop. E. T1HADA 4.000 ale LEGE GtlirmAILun SS-I.038/92 ISSN 1139-/855

*Elgoibarko Udaink. Easka Jaarlaritzako Kaltura Sailak eta Fora Mciuncliak diru: lagundutako aldizkaria.*

sits kutxa

DANOBAT

5>GOIT1
GRLIAfJ WINOUST

200 1 -1V-27

# rigoibartcrrak muNDUANZEHAR

## 13MbILIM



• Madalako etxebizitza berriak egin ondoren kale berria sortu da. Herritar bat etorri zaigu BARRENera eta kale honi zein izen ipini dioten galdetu digu.

BARRENetik Udalera jo dugu eta kalea Bernardo Ezenarroren jarraipena izango dela esan digute. Beraz, Bernardo Ezenarro deituko da. Hala ere, aipatu digutenez, oraindik zenbakiak zehaztu gabe dituzte".

*Atal hau egiten hasi ginenetik SEI HILABETE bete diren honetan agertu diren pertsonei BILBAO EXPRESS BIDAIA AGENTZIAtik gure eskerrik beroenak haatu nahi dizkiegu bezero guztiei eskaini diguzuen kolaborazioagatik*

*Hori dela-eta„gliztien ortecui BIDAIA POLTSA BAT zozketaitt dugu* eta **saritua:**

**MERTXE LOPEZ** da.



## 11111111

• Emakume batek deitu digu honako hau esateko: "Leku Eder ondoan, Aita Agirre parkean jendeak autoak aparkatzeko ohitura dauka. Ondorioz, bertatik ibiltzea galazteaz gain, umeak ezin izaten dute jolasik egin. Herritarmi hori kontutan hartzeko eskatuko nieke".



Barrak, Birrak eta Barreak



# 6.4 ESTARTA
# herrietara moldatua

*Danobat Taldeko Estarta Recfificadora 5. Coop* enpresak *instalakuntzo berrtak inauguratu zituen pasa den barixakuan, apirilaren 20an, Sigmako industriaidean. Jose Leon Ciaranek eta Eulogio Estartak 1914. urteko apirilaren 2lean enpresa sortu zufenetik, erreminta makinan aintzindariak eta adituak izan dira Estartakoak. Baina ez hori bakarrik, herriarekin lotura handia mantendu duen lantokia izan da. lido honi jarraituz, instalakuntzen inaugurazioo ere berezia izan zen.*




Inaugurazio ekitaldian herritarrei ateak irekitzeaz gain, herriko 5 artista ezagunekin osatutako erakusketa antolatu zuten. Gainera, Estartaren 87 urteko historia kontatzen duen liburuxka osatu zuten egun seinalatu honi begira, bide batez, aro berri bat iraganari begira hasteko. Guk ere Estartaren iraganari eta etorkizunari begiradatxoa bota diogu erreportaje honetan.

**Pahiloi berriaren inaugurazioan Estartari hupuzko katalogoa hanatu zuten eta herriko 5 artista bildu zituzten erakusketa hatean**

LIDER BATEN HISTORIA ETA BILAKAERA

Izenburu hau jarri diote Estartaren historia biltzen duen liburuxkari. EIgoibarko industriaren, eta batez ere, makina erremintaren aintzindaria izan zen Estarta. Gaur egun Elgoibar estatuko makina erreminta fabrikatzaile nagusienetalcoa da, eta Estartak berebiziko garrantzia izan du lorpen horretan; baita makina erremintaren sektoreko langile eta adituak sortzen ere. Gerora estatuko eta atzerriko hainbat puntako bezerort banatu dizkiete beraien produktuak, aeronautika moduko sektore garrantzitsua tarteko.



Une txarrak ere izan dira, ordea. Bizirauteko eta aurrera jarraitzeko sekretua garai bakoitzean sortu diren arazoak konpontzeko gaitasunean izan dute. Gauzak horrela, 3 etapa edo aro bereiz daitezke Estartaren historia luzean:

I. ETAPA (1913-1920)

-1914. urtean Ciaran y Estarta Elkartea sortu zen. Jose Leon Ciaran eta Eulogio Estarta elkartu eta suzko armentzako piezak egiten hasi ziren.

-1915. Urtean Teodoro Eeenarro batu zitzaien eta Ciaran y Estarta Cia., sortu zuten.

2. ETAPA (1920-1994)

-1920. urtean enpresa zatitu zen eta Estarta y Ecenarro izena berreskuratu zuen. Taladroak eta prentsak egiten hasi ziren.

-1940. urtean josteko eta bordatzeko makinak egiten

"Gauzak ondo adoaz, hemendik 10 urtera beste p biloi bat inauguratzea gure nahia".

JUAN TELLERIA
ESTARTAKO GERENTEA



hasi ziren. Sigma izenaz saltzen zituzten. Enpresaren produktu liderra izan zen amaierara arte.

-1942. urtean produkzioa gehitzeko Olasoko hilerriaren ondoan terrenoak erosi eta pabiloiak eraiki zituzten.

-1948. urtean zentrurik gabeko artezteko (rectificadoras) makinak egiten hasi zen lehen enpresa izan zen.

-1955ean Eulogio Estarta fundatzailea hil eta Angel Berazadik ordezkatu zuen. Eulogio Estartaren desirarik handienetakoa langileen ongizatea bilatzea izan zen. Asmo honekin hainbat zerbitzu sortu zituen: jantokia, ekonomatoa, liburtnegia, langileentzako etxebizitzak eta ikastetxeak, bordatu akademiak eta baita frontoi bat ere.

Garai honetan Sigma/Estarta eta Ecenarrok osatzen zuten familiak hiri txiki bat modukoa zen. 1.500 pertsona inguruk lan egiten zuten enpresak zituen instalazio guztietan (100.000 $m^2$).

-1970. urtean elektrogailuak eta sukaldeko altzariak egiten hasi ziren.

-1992, urtean josteko makinen salmentek etenaldia izan zuten, Artezteko makinen produkzioak, berriz, berdin jarraitu zuen.

3. ETAPA (1995-...)

-1995ean Sigma, Eyedis eta Estarta Ingeneria & Makinaria, S.A desegin eta Estarta rectificadora, S. Coop. sortu zen.

-1996. urtean Danobat TaIdean sartu zen Estarta.



*Apirilaren 20an, pabiloi berriaren inaugurazio ekitaldian, enpresa munduko fende ugari bildu zen Estartan.*

**Zer moduz joan zen instalazio berrien inaugurazioa?**

Inaugurazio ezhoikoa eta bitxia izan zen. Elgoibarko 5 artistarekin osatutako erakusketa antolatu genuen eta bertso batzuk errezitatu ere bai, besteak beste. Lantoki barruan eta kanpotik jaso ditugun iritzien arabera jendea gustura geratu zen. Elaolbarren tradizio handiko enpresa izanik, Estartak aurrera jarraitzen duela jakinarazi nahi izan genien herritarre+.

**Zer dela eta instalakuntza berriak?**

1995. urtean EYE. S.A Holding korporazioa desegin zenean. 36 pertsonek Estarta Rectificadora. S. Coop kooperatiba sortu zuten. Arazo bat genuen, ordea, ez geneukala instalazio propiorik, alegia, "okupak" moduan geuden. Duela urtebete erosi genituen lurrak.

**Zenbat $m^2$ dituzte pabiloiek?**

Une honetan 3.500 $rn^2$ ditugu, baina 2.500 $m^2$ bakarrik ari gara erabiltzen, gainontzekoak erreserban ditugu. 2001etik 2004ra bitartean plan estrategiko bat jarri nahi dugu martxan, eta lur horiek aurreikusten dugun hazkunderako baliagarriak izatea espero dugu.

**Gaur egun zer produzitzen duzue?**

Zentrurik gabeko artezteko (rectificadoras) makinak egiten ditugu. 62 langile gaude horretarako lanean. Plan estrategikoa martxan jartzean produkzioaren %75a esportatzea da gure asmoa. atzerrira (Frantzia. Alemania eta Estatu Batuak) eta °025a Espainian. 2004. urterako 1.800 milioi pta. fakturatzea espero dugu.

**Nola ikusten duzu Estartaren etorkizuna?**

Orain arte bezala berrikuntza teknologikoak sortzeko gai bagara eta anbizioa balchn badugu, gure produktuak etorkizun ona izango du. Helburu hauek bete ahal izateko gure leloa, "bezeroak eta pertsonak dira gure izateko arrazoia" da. Hau guztia aurrera ateratzeko zuzendaritzatik jendearengan ilusioa sortu behar dugu, eta baita gure proiektua aurrera ateratzeko prest dauden gazteak geureganatu ere. Merkatuaren erronkei aurre egiteko langileak presiatzea beti izan da gure ezaugarria. Gauzak gaizki ez badoaz. hemendik 10 urtera beste pabiloi bat inauguratzea litzateke gure nahia.

la.

## Lan istripuak gutxitzea da maiatzaren leko aldarrikapenetako bat

# LANA SEGURU EGITEN DUZULA IRUDITZEN AL



### IGNACIO ZAZO
28 urte, igeltseroa

Bai, bestela ez nintzateke honetan arituko, Lanerako kaskoak eta arnesak erabiltzen ditugu, eta inspektoreek ere gure lana ikertzera datozenean erabili beharko lituzkete.

### FELIPE SANTIAGO
22 urte, igeltseroa

Batzuetan ez, alturetan lanean ari garenean, esaterako. Gero eta andamio seguruagoak jartzen dituzte baina arnesak eta kaskoak lanerako traba egiten dute eta batzutan ez ditugu erabiltzen.





### MANUEL VAZQUEZ
47 urte, montadorea

Bai, gure enpresan segurtasun neurriak hartzen dira, Segurtasunaz gain badugu beste aldarrikapenik ere, lan asko egin eta gutxi kobratzen baitugu.

### ANTONIO PEREZ
42 urte, ajustadorea

Lanean arriskua beti dago, baina neurriak hartzen ditugu. Segurtasun arauei kasu egitea norberaren erabakia da eta hori heteranotasunak erakusten du.





### IÑAKI MAULEON
41 urte, pintorea

Bai, beharrezkoak direnean, aainera, neurriak hartzen ditut. Neurririk onena esperientzia da, urtetako lanak arriskua non dagoen erakusten du.

### CARLOS FERNANOEZ
57 urte, mekanikoa

Bai, ni seguru aritzen naiz. Baina lan istripuak gertatzen direnean gehienetan langileak segurtasun arauak eta neurriak bete ez dituelako izaten da.



OIERKI IGOGAIWAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko
'1' 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea • 20600 EIBAR

DEBA GARAIA
INMUEBLE AGENTZIA
ERDIALDEAN DAGOEN
TABERNA
ALOKATZEN DA
ARRAZOIA: ezin zaindu izana.
BEHARREZKO TRESNER1AREKIN ETA GUZTIZ 1NTSONORIZATUA.
Errosario, 34-1 ezk • Tel. 943 744 283 • Faxa: 943 744 253

# noia ALDATU diren gauzak!



**1960.** urtekoa da erretratu hau. Bertan, udaletxea eta elizako kanpandoffea ikus ditzakegu. Eskuma aldean ikusten den etxearen azpiko lokalean Biar-Dana elkartea zegoela ez du jakingo askok. Elgoibarko lehenengoetariko soziedadea izan zen honek jardina ere bazuen eta askotan ateratzen ziren tragoa hartzera bertara. Erreka ere agertzen da argazkian: bertan arrantzan ibiltzen ziren, Zeinek pentsatuko du garai batean eskailuak, barboak, loinak, ekaldarmak eta aingirak ere harrapatzen zituztenik.



**2001.** urtea. Gaur egun inguru horren itxura oso bestelakoa da. Etxebizitza berriak egiteaz gain ajedrezeko tableroaren itxurako parkea ere badago bertan, baita Usua eta Ibai-ondo tabernak ere. Gainera, Txankakuako zubitik bertara joateko modua dago eta baita pasealekuan oinez ibiltzeko aukera ere. Lehen, zubitik beste aldera begiratzearekin konformatu beharra zegoen.

Juanito Gorostiza


111111 11 1111 3atzuk
hartzen baditugu?

**Erroma**
Maialzean asteloupu bat.
H*** 2 gau gosararlak barne.
Hegaldia Bllbetlk Tasak aparte
61.200 Pralpertsonaito

**Parts**
Asteburaa maiallean. H**
gosariak barne 2 gaa. Hegaldi
zuzena Tatai( aparte
54.300
Pta/pertsonatra

**LondroEs**
Asteluiraa mairafzean. H**
gosariak barne 2 gau. Hegaldi
zuzena Bilbotlk. razak aparte
54.800
Ptalpertsonaku

**Sabilianigo**
-**11. Gosarlak barne.
Malatzaren letik Uztallaren
14ra. 2 egun eta gau 1.
4.930
Pta./pertsonako

**Landak**
2/4 pertsonalto estudioa.
MaIalzaren 5etik ekainaren
22ra. 3 egun eta 2 gau
15.200
Palestildiaa

**Benidorm**
Hotel Brasll **H. Pentsio osoan
Mala1zsrett 19tik ekainaren
2P2.15 egun/14 gau
53.320
Ptaisertseaalta

**Salou**
Malatzean aste bete.
Hotel California Garden ***
Pentsio osoan.
29.685
Ptalpertsonsko

Prezio onak baino askoz ere gehiago

EROSKi BIDAIAK
SAN BARTOLOME, 11 • TEL. 943 744 656

# GiNizkooko Indano hanalaalleek nipopohelog hasiko

## Bonbona bakoitzeko gutxienez 200 pezeta irabaztea eskatzen dute

Gipuzkoako butano banatzaileek apirilaren 30etik aurrera banaketarik ez dutela egingo jakinarazi nahi diete kontsumitzailleei. Greba honen bidez beraien lan egoera eskasa salatu nahi dute.

Butano banatzaile bakoitzak 147 pezeta baino ez ditu jasotzen saldutako bonbona bakoitzeko. Beraz, urtean 30.000 bonbnnatik gora hanatu behar ditu bizirauteko. Azken bi urteotan bonbonaren prezioa %41 igo da eta butaneroen soldata %5 baino ez. Igoera hori, banatzaileen esanetan, ez da nahikoa erregaia, seguroak, karnioiaren konponketak... ordaintzeko. Hori dela-eta gastuei aurre egiteko butano hanatzaileek egunean 10 edo 12 ordu egin behar dituzte lan. Greba honekin salatu nahi duten beste gauza bat kamioiak gehiegi bete beharra da. Horrela. bideko segurtasunerake arrisku bat hihurtzen dira butano kamioiak.

### Osasun arazoak

Lan ordu asko sarttt beharraz gain, butaneroen osasun arazoak ere ez dira gutxi: infartuak, erreumak, bizkarreko minak... Berez laneko gaixotasuntzat hartu ez arren, gaitz hauek lana lagatzera behartzen ditu butaneroak.

### Eskaria

Butano banatzaileek bonbona hakoitzeko gutxienez 200 pezetako irabaziak izatea eskatzen dute, bestela beraien Iana uztera behartuta daude-eta. Greba apirilaren 30ean, astelehenean hasi eta mugagabea izango da.





| | 11 BUTANO BONBONA J | L_BUTANCIBANATZAILEA |
|---|---|---|
| 1999 | 1028 pta. | f40 pta./bonbonako |
| 2001 | 1449 pta. | 147 pta./bonbonako |
| Igoera | | %5 |

# Nekazal lurretako mugarriak jarriko ditu Debemenek aurten

## Baserrietako posta buzoiak berritzea da beste proiektuetako bat

Debemen elkarteak 2001erako proiektuak onartu zituen joan den martxoaren I 8an egindako bileran. Besteak beste bost plangintza nagusi jarriko dituzte martxan Elgoibarren aurten. Baserrietako posta buzoiak berritzeaz gain, bidegurutzeetan seinale berriak ipiniko dituzte, baserri eta auzoen izenak zehaztuz. Lan hauek l .235.000 pezetako aurrekontua izango dute. San Pedro auzorako ur horniketa egiteko, herriz, 2.065.000 pezetako aurrekontua aurreikusi dute. Auzoetako bizilagunek elkarrekin duten harremana ikusita, eta orain arte San Antolinen lokal sozialik ez dela egon jakinda. 1.969.737 pezetako diru sarrera eskainiko dute proiektu honetarako.



*Mugarriak zehaztea da kostu handiena izango duen proiektua.*

Lanik eta diru kosturik handiena izango duen proiektua nekazal lurretako mugarriak zehaztea izango da. Muga asko LT.aldutzt daude eta jendeak ez dakizkienez, nekazarien artean adostasunik ez egoteko arriskua dago. Hala ere, gehientsuenak jarriz gero pozik leudeke Debemenekoak.

## Gurean Bai hitzarmenak iazko urtean egindako lanaren balorazio positiboa egin du



Elgoibarko entitateetan euskara indartzeko Gurean Bai plangintza martxan jarri zenetik 5 urte pasa dira eta bosgarren urtean egindako lanaren balorazioa aurkeztu dute prentsaurrean Elgoibarko Izarrako lehendakari Beñat Bibaok, Udalaren Euskara Batzordeko lehendakari Miren Arrate Arrietak eta Gurean Bai Hitzarmeneko teknikari Abel Irizarrek. Iazko jardunari dagokionez, bi lan nabarmendu zituzten: Batetik, Euskarazko Harreman Sarea sortzea. 27 entitatek euren arteko harremanak euskaraz izateko erabakia hartu dute. Horrez gain, Liburutegian, Musika Eskolan eta Kirol Patronatuan bazkideei harremanak euskara butsean izateko aukera eman zaie. Bestalde, euskararen ezagutza ere dezente landu dute entitateetan. Abel Irizarren esanetan, "euskararen normalizaziorako beharrezkoa da euskarazko espazioak sortzea eta indartzea".

## Elgoibarko Mendi Itzulirako laguntza eskatuko die Morkalk4 Mendizale Elkarteak herriko merkatariei

Maiatzaren 20rako Elgoibarko Mendi Itzulia antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak. Baina antolaketan herriko merkatarien laguntza ezinbestekoa da, eta hori kontutan hartuta Morkaikoko kideek gutun bat banatuko dute herriko dendetan kolaborazioa eskatuz. Maiatzaren lehenengo astean pasako dira dendaz denda gutuna uztera, eta komertzianteak aurrez jakinaren gainean jarri nahi dituzte.



## Maketen eta panelen bidez azaldu zituen Irukurutzeta Karakate Bizirik Plataformak parke eolikoen eraginak

Irukurutzeta-Karakate Bizirik Plataformak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen asteotarako. Karakatetik Irukurutzetara bitartean egiteko asmoa duten parke eolikoaren eragina herritarrei azaltzea da egitasmo hauekin taldeak lortu nahi duena. Horretarako joan den larunbatean hainbat maketa eta panel jarri zituzten Plazari parke eolikoen nondik norakoak azalduz. Hitzaldia, kontzertua, zine emanaldia, bertso bazkaria eta amaitzeko akanpada dira antolatu dituzten beste ekitaldiak. Akanpadan elgoibartarrez gain parke eolikoa eginez gero kaltetuko lituzketen herrietako lagunek ere hartuko dute parte.

## Elgoibarko Institutuak kalitatearen alde egindako lana saritu du Hezkuntza Sailak

Argazkian, Iñasio Oliveri, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko kontseilaria, agertzen da Iñaki Konde Elgoibarko Institutuko zuzendariari saria ematen. Joan den martxoaren 28an Donostiako Miramar jauregian egindako ospakizunean jaso zuen saria kalitatearen alde egindako lanarengatik eta baita ISO 9.002 ziurtagiria eskuratu dutelako ere.



# ElE Osasunean adituak

## sz'z)sasuna

### NOLA IGARRI DEZAKEGU AZALEK0⁻⁄ ORINAK TXARRAK DIREN ALA EZ?

Ingurunea gero eta gogorragoa da gure gorputzarekin. Kutsadura, eguzki radiazioak, ozono geruzaren zuloa... gure azalaren kalterako dira. Melanoma da azaleko minbizirik arriskutsuena. Gero eta melanoma kasu gehiago dago, eta horren arrazoietako bat jendeak eguzki izpiei errespeturik ez izatea da. Gorputzeko orinak horren adierazle dira eta orin kopuruak, tarnainak eta ezaugarriek hadute zeresanik melanoma izateko arriskuan. Dena den, diagnostikoa garaiz eginez gero zirugiarekin erraz senda daiteke.

**Kaltetuak**

- Azal oso zuria dutenak.
- Kanpoan denbora askoan egoten direnak.
- Eguzki asko dagoen lekuan bizi direnak.
- Gaztetan azaleko erredurak izan dituztenak.
- Familian melanoma kasuak dauzkatenak.

**Melanoma edo orin txarren ezaugarriak**

**Asimetrikoak:** alboak ezberdinak dituzte, baina orinak borobilak dira.

- **Ertz irregularrak:** Bazterrak koskekin edo ongi definitu gabe ditu.
- **Kolore ezberdinak:** Orinek kolore bat baino gehiago dituzte, alde batzuk argiagoak dira eta besteak ilunagoak.
- **Diametroa:** 8 milimetrotik gorakoa.

**Prebentzioa**

Txekeoa

Helduek hilabetean behin autotxekeo bat egin beharko lukete, baldin eta azalean orban berriak agertuz gero edo aurrez dituztenak handituko balira.

Neurriak

- Azala eguzki izpietatik babestu txapel edo biserekin. Eguerdiko eguzkia ebitatu

*Iturria: Salud y Medicina aldítharia*

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Mechkuntza naturala, F. de Bach masaia, makroblotika. yoga)

............. San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

............................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda (Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)

............................ San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

............................... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPT1KAK

**Ikus** (Optiko-optometrista)

...................... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

............................... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20100

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia. audometria)

............................ San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

........................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

................................ Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

.................... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

............... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Ihaki Rivero**

.............. San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

........................... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu** nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

Ki BaRRen

2001 ko apiriloren 27o/VIII urteo/73. zkia

## Arregiko etxea bota dute Azpilgoetako sarreran errotonda egiteko

Bestalde, Garagartza auzoan Aspiazuneko etxea ere bota zuten

Azpilgoetako kaleetan aldaketa handiak atzeman daitezke azkenaldi honetan. Hasiera batean, etxe berriak eraikitzeko lurren egokitzapen Ianetarako "palaziva" bota bazuten, Aste Santuko bezperetan Arregiko etxeari egokitu zitzaion txanda. Etxe honek bazuen berezitasunik: ate ondoan harrizko gurutze bat zuen, sasoi batean Aste Santuan egon ohi ziren Gurutz Bideko prozesioen seinale.

Azpilgoetako sarrera hobetzeko errotonda egingo dute. Arregiko etxea bota behar izan dute.



*Arregiko etxearen berezitasuneko bat ate ondoan zuen harrizko gurutzea zen.*

Gerra garaian eskola izandakoa

Bestalde, Garagartza aldean Aspiazuneko etxea bota zuten. Eraikuntza hau eskola izan zen gerra garaian. Kilimon errekaren ufalek hainbeste zigortutako auzoa bizibenitzeko. Garagartza urbanistikoki berregituratzeko proiektua dago.

## Mendarotarrak Soriara joan ziren Reala animatzera

Pasa den hilaren 15ean, igandean, Mendaroko Realaren Lagunak-ek antolatuta Soriara joan-etorriko bidaia egin zuen Numantzia eta Realaren arteko partidua ikustera. Aurten ere, iaz bezala, 12 jarraitzale bildu ziren bidaia labur honetarako.



Bertan izan zirenek esan digutenez oso ondo pasa zuten. Goizeko 8:15ean irten ziren Mendarotik eta debarrak izan zituzten bidaia lagun Realaren partidua ikustera joateko. "Egunean zehar han ibili ginen Soriako kaleetan Realeko beste jarraitzeelin batera", esan digute.

Itzulera alaiagoa izan zitekeela ere aipatu digute, Reala irabazten egon ondoren, hiruna amaitu baitzuten partidua Los Pajaritos futbol zelaian.

## Udalak ikastaroak antolatu ditu

Dantza tropikalen kurtsoa, eskulan eta dekorazio tailerra eta marrazki eta pintura tailerrak antolatu zituen lehendabizi Udalak. Dantzako ikastaroa bertan behera laga zuten jenderik apuntatu ez zelako. Eskulan eta dekorazio tailerra asteartero izaten da, 8:30etik 20:00etara; eta marrazki eta pintura tailerra, berriz, ostegunero, 18:30etatik 20:00etara. Erretzeari lagatzeko ikastaroa ere antolatu da, baina abian jartzeko 16 pertsoneko taldea osatu behar da. Hau lortuz gero, 6 astetako saioak emango dira. Azkenik, maiatzaren 19rako graffiti tailerra ere antolatu dute mojen komentu zaharrean, 16:00tik 20:OOra bitartean.

## ■ Txirristaka Bertso Eskolakoak Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Martxan da jadanik Gipuzkoako Eskolarteko 21. Bertsolari Txapelketa. Edizio honetan ere Txirristaka Bertso Eskolakoak partaide izango ditugu. Bat bateko txapelketarako inor aurkeztu ez bada ere, bertso papelen atalean arituko dira mendarotarrak. Aurten, eskualdeko kanporaketa Elgoibarko San Bartolome Ikastolan izango da maiatzaren 11n, arratsaldeko 15:00ean.

KiliBaRRen Kolaboratzaileak: Edurne Olazabal, Lurdes Rodriguez eta Enetz Ezenarro.
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# Musika Eskola

## EGITEKO PROIEKTUA m e

**_Mendaron musika eskola sortzeko asmokin dabilizala jakin dugu. Duela urtebete inguru hasi zen ideia hau forma hartzen. Herrian musikarekin eriazioa duten talde ugari daude, baina bakoitza bere aldetik joan ohi da. Hori ikusita, taide desberdinak bateratzeko beharra ŕpini zen mahai gainean. Guztiak elkartu eta norobide berdinean lan egiteko beharra. Harrezkera bilerak egin dira udaletxean. Gaur egun, proiektua aurkeztu behar dute. Proiektu horren nondik nomkoak lakin nahi izan ditugu erreportaje honetarako eta musika eskola egiteko proiektua aurkezteko osatu den batzonlekidea den Aitor Motrikorekin egon gara._**

Otsailean Udalarekin egindako bilera batean batzordea eratu zen Mendaron. Batzorde honen betebeharra izango da Udalean proiektua aurkeztea. Bertan, sortu nahi den musika eskolaren helburuak eta iharduerak zein izango diren edo zein izatea espero den azaldu beharko da. Gero, Udalak eman beharko du baimena.

Aitor Motriko musika eskola sortzeko eratu den batzordeko kidea da. Berak esan digunez, "hasieran hutsetik hastia da helburua, 8 eta 11 urte bitarteko umiekin. Hortarako instituzioen, hau da, udaletxiaren laguntza bihar da. Hori dala ta, proiektu bat egiten ari gera, helburu guztixekin. Gero, erantzunaren zain gelditu biharko gera. Zestoako Musika Eskolaren laguntza jasotzen dogu, eta euren pausuak jan̈aitxuko ditxugu. Eurak ere hutsetik hasi zian, baina proiektua aurrera atera ahal izateko diru laguntzak jaso zitxuzten.

Proiektua aurkeztu ondoren, Udalaren erantzuna ahalik eta azkarren izatia komeniko litzaiguke, ekainian prematrikulia eta papeleo guztixa eiten hasteko".



**"Proiektu hat egiten ari gera. Gero, udaletxiaren erantzunaren zain gelditu biharko dogu".**

KITOR MOTRIKO
Preiektuarien batzerdeke kidea

### PROIEKTUAREN AZALPENAK

Proiektuan azalduko duten moduan, Mendaron 20 ikasle daude gaur egun musika ikasten. Musika eskola sortzekotan, saxofola, akordeoia, gitana, tronpeta, bonbordinoa, tronboia, klarinetea, panderoa eta umeen abesbatza landuko dituzte.

Horrela, "musika eskaintza zabala luzatu nahi zaio Mendaroko herrixari. Eskaintzak biztanle guztiengana heltzia nahi dogu, adin bereizketarik gabe. Edade guztietako jendiaren partaidetza bultzatzia nahi da".- esan digu Aitorrek.

### HELBI

Proieki
kul turaren
Biztanleen
entzuteko
izaera krit
duten herri
Horrela,
musika esl
gerora oski
Hori lortz

**Musik
ahal
eta
pr(**

rik nagusi
da. "Herr
ere pents
Eguneko
eki taldixa
ko jaialdi
naldixa, b

daron

RUAK

aren helburuetako bat musikaren
skaera zabalari erantzutea da.
an estilo desberdineko musika
tletasuna piztea eta jendearengan
zoa garatzea. Azkenik, interesa
irrei formazioa eskaini nahi zaie.
Lek guztiak kontutan hartuz gero,
)]a tresna aparta izango litzateke
;tra nahiz banda txikiak sortzeko.
ko, musika eskolaren jarduera-

**i eskola aurrera atera
teko batzordea osatu da
trengo pausoa Udalean
ektua aurkeztea da.**

na musika irakaskuntza izango
tri begira, hainbat ekitalditxan
tu da. Horrela, Santa Zezilia
aialdixa, Kontsezio Eguneko
Gabonetakoa, kurtso amaiera-
a eta Santa Ana jaietako ema-
stiak beste".

*Zer iruditzen zaizu*
# Musika eskola
*martxan jartzea?*



**Nieves Aranberri**
Oso komenigarrixa dala uste dot, baina gauzak aurrera eramateko danak elkartuta lan egin bihar dogu.

**Lurdes Urain**
Oso ondo iruditzen zait. Talde bakoitza bere aldetik lan egiten ari da gaur egun eta denak bateratzea ondo dago. Udalak lokala ematia hasteko modu bat izango litzateke,





**Aitzol Urain**
Beharrezkua dala iruditzen jata, orain bakoitza bere aldetik dualako, baina ez det udaletxian aldetik laguntza asko ikusten.

**Jurdan Ezenarro**
Biharrezkua dala ikusten det. Batez ere herrixari bizitxasun pixkat emateko.





**Nekane Zulaika**
Ondo. Bestela, umia leku batetik bestera eruaten ibili bihar izaten gera. Proiektuaren erantzuna baiezkua izanez gero, Mendarorstzat gauza on bat izango litzatekeela pentsatzen dot.

# S77ettat u zalla77



(1111111111

1e honetako erretratu zaharra Rosa Urainek laga digu. 1960. urte inguruan, Ostiral Santuan ateratakoa da. Aste Santua pasa berri dela-eta argazki honekin Ostiral Santu Egunean Mendaron egiten ziren prozesioak gogorarazi nahi izan ditugu. Hauek dira erretratuan agertzen direnak: Aingeru jantziarekin; Inma Hernandez (aurpegia bakarrik ikusten zaio); Atzean, ezken etik eskunnara; Lehenengo ilaran, M. Angeles Olazabal eta Elizabeth. Bigan.en ilaran: Txaro Eizagirre eta Rosi Urain. Hirugarren ilaran; Clemen Hernandez eta M. Jose Arriola; Kristoren hilkutxa daramatenak. Aurrean: Felipe "Lasalde" eta Manuel "Torre". Atzean: Jose Olazabal.


ARRATS Pub
MENDARO
Zelaikoa, 2
Tel. 943 75 50 58

1973ko kintoen
B AZKARIA

EGUNA: maiatzaren lean
LEKUA:10llmon Elkartea

IZEN EMATEA:
`Arrats Pub'ean hilaren 30a, astelehena, baino lehen.

gpacio Zahaftz

B.H Institutua
Jardineta, z/g • Eibar
Tel. 943 208 349



BATXILERGO ARTISTIKOA
Deba eskualdeko zentru bakarra

HEZIKETA ZIKLOAK
Goi mailakoa: ingurugiro kimika
Erdi mailakoa: laborategia

HIZKUNTZA EREDUAK
A eta D ereduak
21 urteko tradizioa klaseak euskaraz emateri

iZ b.h. institutua

MATRIKULA EPEA zabalik maiatzaren 2tik 11ra.

# informazioa

## Eusko rren

fRENAK

**DONOSTIA-BILBO**
**Astelehenetik ostirat lanegunetara**
Donastia AnkRA 5.47 06.47
Elgoibar 07.02 08,02
Eibar 07.13

**BILBO-DONOSTIA**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Bilbo 06:00
Eibar 06.13 07.13
Elgoihar 06.23 07.23

**DONOSTIA-BILBO**
**Egunero**
Donostia AMARA
07.47 08.47 09.47 10.47 11.47 12.47
Elgoibar
09.02 10.02 11.02 12.02 13.02 14.02
Eibar
09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
DonostiaAMCA
13.47 14.47 15.47 16.47 17.47 18.47 19.47 20.47
Elgoihar
15.02 16.02 17.02 18.02 19.02 20.02 21.02 22.02
Eihar
15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13 22.13

**BILBO-DONOSTIA**
**Egunero**
Bilbo
